

ASTO ZARRA TA GAZTIA.

Bina anega arto
 Bakoitzak gañian,
 Zeramazkiten asto
 Bik bide batian;
 Errotara joan biar
 Zuten trukatzera,
 Ale ayen ordañez
 Iriña ekartzera;
 Asto zarra utzirik
 Atzian, korrika,
 Abiya zan gaztia
 Salto t' irrintzika;
 Bañan bide erdiyan
 Lertu ta gelditu,
 Zan asto gazte ori
 Eziñik mugitu;
 Zarrak bere indarrak
 Zituben neurritu,
 Abiya zan pausuan
 Ark zuben segitu:

Errotara irichi
 Eta truka-era
 Egiñikan jira zan
 Ostera echera;
 Zarra uste zuben ark
 Atzian uztia,
 Bañan ez, gelditu zan
Betiko gaztia.

.
 Gaztia izan arren
 Ezbada neurriyan
 Artzen bear dan gauza
 Chit kontu aundiyan,
 Arkitu liteke bat
 Gis artan agiyan;
 Zarra errespetatu
 Dezagun guztiyan,
 Iñoiz arki ez gaiten
 Farragarrikeyian.

FELIPE KASAL OTEGI.